LASARTE-ORIAKO KALBARIO BIDEA, 7 – BEHEAN TABERNA/JATETXE ETA EGOITZA SOZIALAREN PROIEKTURAKO KLIMATIZAZIO- ETA AIREZTAPEN-ZERBITZUA KONTRATATZEKO OINARRIAK.

2021EKO UZTAILAREN 19A

PSE-EE de Gipuzkoa
Prim kalea, 15
20006 Donostia-San Sebastián
www.socialistasguipuzcoanos.com

1. LEHIAKETAREN XEDEA ETA IZAERA

PSOEren kontrataziorako barne-jarraibideen arabera, oinarri hauen helburua da Lasarte-Oriako Kalbario Bidea, 7 – behea helbidean kokatutako taberna, jatetxe eta egoitza sozialaren proiektuko klimatizazioaz eta aireztapenaz arduratuko den hornitzailea edo hornitzaileak hautatzea.

Asmoa da lokal hori, gaur egun egoera gordin edo obrakoan dagoena, erabilera anitzeko espazio bihurtzea, Lasarte Oriako Alderdi Sozialistaren jarduerarako egonaldiez gain, taberna/jatetxe ere izan dadin, horrek eskatzen dituen zerbitzu guztiekin.

Oinarri hauen helburua da proiektu hori osatzeko behar diren klimatizazio- eta aireztapen-lanak egitea, lokala erabat eraldatzeko behar diren lanbide eta partida guztiak barne hartuta.

Lizitazio hau bat dator PSOEk energia-aurrezpena sortzen duten eta energia-eraginkortasuna hobetuz ingurumen-inpaktua murrizten laguntzen duten jardueren sustatzaile gisa bere gain hartzen duen zereginarekin, eta horien garapenak gidatzen ditu lehiaketa honen esku-hartze irizpideak.

Oinarri hauek, berez, ez dute kontratu-izaera, baina lotesleak dira, eta ondorengo kontratazioa zein hornitzailerekin egingo den hautatzea dute helburu, gerora zerbitzuak dagokion kontratuari ezarriko dizkion baldintzak finkatzearen kaltetan izan gabe.

2. KONFIDENTZIALTASUN-PRINTZIPIOAK ETA GURE KODE ETIKOA ERRESPETATZEA

2.1. KONFIDENTZIALTASUN-KLAUSULAK

Hornitzailea hautatzeko prozesua konfidentzialtasun-irizpiderik zorrotzenaren arabera egingo da.

Parte hartzen dutenek konpromisoa hartzen dute ematen zaien informazioa konfidentzialtasun osoz tratatzeko, hautaketa-prozesuan zehar eta ondoren, hautatuak izan ala ez, konfidentzialtasun-konpromisoa nahitaez sinatuz, lehiatzeko baldintza gisa.

Lizitazio honetan parte hartzen dutenek parte hartzeko behar duten informazioa eskuratu ahal izango dute. Hautaketa-prozesuan parte hartzeagatik eskuratzen den

informazio oro, aldez aurretik idatzizko akordiorik egin ezean, informazio konfidentzialtzat hartuko da oso-osorik.

Parte-hartzaileek trukatutako informazioaren konfidentzialtasuna babesteko obligazioa hartzen dute, eta lizitazio-prozesu honetan inplikaziorik ez duten hirugarrenei eta/edo beren erakundeko pertsonei informazioa ez zabaltzeko behar diren baliabideak jarriko dituzte.

Konfidentzialtasun-betebeharra urratzen duenari, betebehar hori urratzeagatik sortutako kalte-galerak erreklamatu ahal izango zaizkio.

2.2. GURE KODE ETIKOA ERRESPETATZEA

Parte hartzen duten hornitzaileek PSOEren Kode Etikoaren Printzipioak onartzen eta partekatzen dituzte, eta www.psoe.es web-orrian dituzte eskuragarri; beraz, parte-hartzearekin, jaso eta irakurri dituztela ulertutzat jotzen da.

Parte hartzen duten hornitzaileek, lizitatzeko, espresuki hartzen dute PSOEren Kode Etikoa eta haren betekizun lotesleak betetzeko konpromisoa, beren enpresa-jardueraren barruan, bai eta azpikontratatutako enpresen edo enpresa laguntzaileen jardueran ere, honako puntu hauei dagokienez:

- Legeria betetzea
- Gardentasuna
- Errespetua eta diskriminaziorik eza
- Segurtasuna eta osasuna
- Giza Eskubideak eta Gizartea
- Ingurumena
- Instalazioak, ekipoak eta irudia ondo erabiltzea
- Zintzotasuna merkataritza-harremanetan
- Konfidentzialtasuna

Hornitzaile parte-hartzaileek konpromisoa hartzen dute, halaber, aurreko betekizuna egiaztatzen duten agiriak PSOEri bidaltzeko, eskatuz gero.

PSOEren Kode Etikoa betetzeari buruzko edozein ohar egin behar izanez gero, hornitzaile parte-hartzaileek konpromisoa hartzen dute PSOEren Erosketa Zerbitzu Partekatuaren bidez edo contratacion@socialistasguipuzcoanos.com helbide elektronikoaren bidez jakinarazteko.

3. ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA, ESPEZIFIKAZIOAK ETA BALDINTZAK

Lizitazio hau aurreikusten duen proiektuaren luze-zabala dela eta, ezinbestekoa da eskaintzaileek behar adina bisita egitea obra garatzeko behar den informazio guztiarekin parte hartzeko.

3.1. OPTIMIZATU BEHARREKO EREMUEN ARABERAKO DESKRIBAPENA

Obra osoa bi gunetan egingo da, lehen adierazi denez; bertan jarduera hauek izango dira: Lasarte-Oriako PSE-EEren taberna/jatetxea eta egoitza soziala.

- A gunea: PSE-EEren egoitza lokalaren iparraldean egongo da. Bulego bat, bilera-gela bat, ekitaldi-areto bat, biltegi bat eta komun bat izango ditu. Gune hori administrazio-lanetarako eta talde Sozialistaren bileretarako erabiliko da.

- B gunea: Tabernak/jatetxeak izango ditu taberna-erabilerako gune bat mahaietarako espazio batekin eta barrarekin, eta beste gune bat jangela gisa erabiltzeko. Gainera, jarduera horiek betetzeko behar diren zerbitzuak izango ditu: sukaldea, biltegia, aldagelak eta komun publikoak. Jardueraren funtzionamendua edariak eta pintxoak tabernarako gunean ematea izango da; jantokirako eremuan, berriz, menuak, errazioak edo plater azkarrak eskainiko dira.

Erabilerak	Azalera metro karratutan
Taberna	64.98
Jantokia	65.02
Barraren eremua	12.59
Sukaldea	19.42
Aldagelak	2.86
Tabernaren biltegia	19.79
Jantokiaren biltegia	1.82
Komunak	9.76
Banaketa	6.87
Egongela	127.40
Bulegoa	6.69
Bilera-gela	16.96
Komuna	3.75
Egoitzaren biltegia	6.83
Banaketa	29.92
Guztira	394.67

3.3. ZERBITZUAREN ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK

- Klimatizazio eta aireztapeneko jarduketek Lasarte-Oriako Kalbario bidea, 7 – behea helbidean dagoen lokal osoa hartu beharko dute, eta azken proiektutik sor litekeen edozein gorabeherari irtenbideak eskaini beharko dizkiote.

- Klimatizazio eta aireztapen-zerbitzuaren barruko jarduketa orok ezin izango ditu, inola ere, eraikinaren egiturazko elementuak aldatu, ez eta azken bolumetria aldatu ere, finkak une oro bete dezan araudietan ezarritakoa.

- Bermatu egin beharko da esku-hartzea bat datorrela eraikinaren berezko egoerarekin eta euste-gaitasunarekin.

- Lokalean hotza eta beroa ekoizteko klimatizazio-instalazioa eskaintzea, energia-eraginkortasun handiko bero-ponpen sistema baten bidez, kaseteak erabiliz, indarrean dagoen araudia (EKT, RITE) betetzen dela eta lokalean instalatzeko bideragarria dela bermatuz.

- Taberna-jatetxeko airea berritzeko instalazioa eskaintzea (bulkada eta erauzketa), hodien eta sareten bidez aireztapen behartuko sistema batekin, energia-eraginkortasun handiko bero-berreskuratzaile bat instalatzea barne.

- Egoitza sozialeko airea berritzeko instalazioa eskaintzea (bulkada eta erauzketa), hodien eta sareten bidezko aireztapen behartuko sistema bat ezarrita.

- Material guztiek osasungarritasun- eta jasangarritasun-irizpideak betetzen dituztela bermatzea, bai eta kendu diren eta birziklatu edo berrerabil (eta, hala badagokio, era egokian bazter) daitezkeen elementuen trazabilitatea ere.

- Ondoriozko espazio libreek edukiera-baldintza galdagarriak betetzen dituztela, eta, behar balitz, ebakuazio-planera egokitzen direla bermatzea.

3.4. FAKTURAZIOA ETA ORDAINTZEKO MODUA

Fakturak esleipendunari ordainduko zaizkio, eta IFZ edo sozietate bakar bati, proposamen esleipenduna enpresa batek nahiz partzuergo batek egina izan.

Ordainketa banku-transferentzia bidez egingo da, egikaritu diren partidak amaitu direnetik 30 egunera. Baldin eta kontratistak idatziz eskatzen badu, aurrerapena egin ahal izango da; % 30ekoa gehienez ere.

3.5. HAUTATUTAKO KONTRATISTAREN BETEKIZUNAK

Hautatutako kontratistak lanaren, gizarte-segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu, erantzukizun osoa bere gain harturik, eta kontratuaren xedea gauzatzeko behar diren langileak izan beharko ditu bere kargura, eta langile horiei dagokienez, enpresaburu izango da ondorio guztietarako. Ondorio horietarako, eta kontratuko prestazioak egikaritzen hasi aurretik, kontratistak prebentzio-planaren eta barneko edo kanpoko prebentzio-zerbitzuen egiaztagiria aurkeztu beharko dio PSOEri.

Kontratua kontratistaren arrisku eta menturan egikarituko da. Kontratistaren betebeharra izango da kontratua egikaritzeko egin beharreko eragiketen ondorioz berak edo bere mendeko langile edo bitartekoek hirugarrenei eragindako kalte-galera guztiak ordaintzea. Kalte-galera horiek PSOEren agindu baten berehalako eta zuzeneko ondorio direnean, PSOE bera izango da kalte eta galera horien erantzule legeetan ezarritako mugen barruan (SPKLTBaren 214. art.).

Hautatutako kontratista izango da, era berean, kontratua egikaritzean PSOEri zein hirugarrenei sortzen dizkieten kalte-galeren erantzule, bai bere laneko akats edo urritasun teknikoengatik, bai lana egitean eragindako akats material, ez-egite edo legeetako zein erregelamenduetako manuen arau-hausteengatik, SPKLTBaren 305. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontratua profesional batekin baino gehiagorekin partekatuta egikaritzen bada, denak izango dira erantzule solidarioki, klausula honi dagokionez.

4. LEHIAKETAREN MUGARRIAK

4. 1. ESKAINTZAK AURKEZTEA

i) Forma

Enpresa interesdunek lehia-eskaintza bidali ahal izango dute, oinarri hauetan jasotako betekizunei erantzunez, bai zehaztapen teknikoei dagokienez, bai adierazten diren gainerako alderdiei dagokienez, bai enpresaren iritziz interesgarria izan litekeen beste alderdi batzuei dagokienez, Gipuzkoako PSE-EEren (www.socialistasguipuzcoanos.com) webgunean argitaratutako egunetik hasi eta 2021eko abuztuaren 8ra arte, PSE-EEren Gipuzkoako probintzia-egoitzan (Prim kalea, 15 - Donostia) edo contratacion@socialistasguipuzcoanos.com posta elektronikoan.

Eskaintzan, egikaritu beharreko eragiketen programa eta aldizkakotasuna jaso beharko dira.

Eskaintza guztiek etorri behar dute bat lege-araudi aplikagarriarekin.

Proposamenek honako puntu hauek jaso beharko dituzte:

- ✓ Proposamen ekonomikoa eta egikaritzearena
- ✓ Kontratazio-prozesuan parte hartu nahi duten hornitzaile eskaintzaileek konfidentzialtasun-klausulak sinatu behar dituzte parte hartu aurretik, edo, bestela, oinarri horiek berariaz onartu behar dituzte (zalantza).
- ✓ Hornitzaile eskaintzaileek ziurtatu behar dute aurreikusitako baldintzak eta zehaztapen teknikoak betetzen dituztela.
- ✓ Gure kontratazio-jarraibideetan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, hornitzaile eskaintzaileek:
  - "Kontratatzeko debekuaz legerian aurreikusitako ezein kausaren pean erori ez dela dioen deklarazioa" egin beharko dute.
  - "Zerga-betekizunak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean" dituztela egiaztatu beharko dute, aurreikusitako bideetako bat erabilita.

- ✓ PSOEren Kode Etikoa onartzen duela adierazten duen berariazko adierazpena aurkeztu behar dute, 2.2 oinarriaren arabera.

- ✓ Eskaintzan berariaz aipatu beharko dute oinarri hauetako baldintza guztiak onartzen dituztela eta lotesleak direla.

Ez da onartuko horrela aurkeztu ez den eskaintzarik.

ii) Eskaintza aurkezteko epea

Eskaintzak oinarri hauek argitaratzen direnetik abuztuaren 8ko 20:00ak arte onartuko dira.

Ez da onartuko epe horretatik kanpo aurkeztutako eskaintzarik; nolanahi ere, 3 egun naturaleko epea egongo da aurkeztutako dokumentazioa argitu eta zuzentzeko, eskaintza epe barruan aurkeztu duten eskaintzaile guztientzat.

4.2. PROPOSAMENAK BAZTERTZEA

Eskatutako baldintza teknikoak eta gaitasunari eta kaudimenari buruzkoak ez betetzeagatik baztertutako proposamenei dagozkien eskaintzak kontratua esleitzeko prozeduratik kanpo geratuko dira.

Kanpoan geratuko dira legeria aplikagarrian aurreikusitako edozein kausaren pean edo honako kausa hauetakoren baten pean erori diren enpresak:

- ✓ Eskaintza ekonomikoan letraz eta kopuruz adierazitako zifraren arteko desadostasuna aurkeztea, transkripzio-akats hutsa agerikoa denean izan ezik.
- ✓ Eskaintza bat baino gehiago aurkeztea edo bere proposamena beste enpresaburu batzuekiko aldi baterako elkartean sinatzea, banaka egina bada; edo aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan egotea.
- ✓ Aldaerak edo alternatibak dituzten proposamenak aurkeztea.
- ✓ Eskaintza epez kanpo aurkeztea.
- ✓ Egikaritu beharreko objektu osoa ez baloratzea, edo eskaintzak kalkulu nabarmen okerrak edo aritmetiko hutsak ez direnak edukitzea.
- ✓ Zehaztapenak nabarmen ez betetzea dakarten planteamenduak egitea.
- ✓ Teknikoki bideraezinak edo nabarmen akastunak diren planteamenduak egitea.
- ✓ Lizitatzaileak aitortzea, eskaintzak irekitzeko ekitaldian edo eskaintzak ireki aurretik, bere proposamena akastuna edo funtsik gabea dela eta, ondorioz, bideraezina dela.
- ✓ Eskaintzek balio anormalak edo neurriz kanpokoak edukitzea, eta halakotzat hartuko dira lizitatzaile guztien batez besteko baja hamar unitatetan

gainditzen duten prezioak; aurrez SPKLTBak ezarritako zehaztapenekin bat etorriz izapidetutako espedientea eginda.

- ✓ Aldaeren edukietan lehen aipatutako beste edozein anomalia, aldaerak baimenduta daudenean.

Baztertutako eskaintzak ez dira kontuan hartuko esleipen-prozeduran. Eskaintza baztertu egin bada, ezin da zuzendu, eta eskaintzaileari jakinaraziko zaio.

4.3. FASEAK ETA EGUTEGIA

PSOEk epea luzatzeko edo aldatzeko eskubidea izango du, egoki baderitzo, eta posta elektronikoz jakinaraziko die parte hartzen duten enpresei; bestela, honako hauek dira esleipen-prozesurako ezarritako epeak:

Egintza	Arduraduna	Noiztik	Noiz arte
RFQ bidaltzea	Euskadiko gerentea	16/07/2021	16/07/2021
Eskaintza posta elektronikoz bidaltzea	Hornitzailea	19/03/2021	08/08/2021
Eskaintzen aurkezpen-bilerak	Hornitzailea	09/08/2021	13/08/2021
Hornitzaileen short listarekin negoziatzea	Hornitzailea	16/08/2021	20/08//2021
Erosketen eta Esleipenaren batzordea	Euskadiko gerentea, Gipuzkoako administratzailea eta Gipuzkoako aholkulari juridikoa	23/08/2021	23/08/2021
Zerbitzuaren hasiera		Adosteko	
Zerbitzuaren amaiera		01/07/2022	

4.4. LEHIAKETA BALORATZEKO ETA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK.

i) BALORAZIO-BATZORDEA

Aurkeztutako eskaintza guztiak aztertzeko Balorazio Batzorde bat eratuko da, Euskadiko PSE-EEko gerenteak, Gipuzkoako PSE-EEko administratzaile probintzialak eta Gipuzkoako PSE-EEko Zerbitzu Juridikoen arduradunak osatua.

Balorazio Batzordeak, bere proposamena egin aurretik, beharrezkotzat jotzen dituen txosten tekniko guztiak eskatu ahal izango ditu, bai eta bere eginkizunak betetzeko behar beste bilkura egin ere.

II) BALORAZIO-IRIZPIDEAK

a) **Balorazio ekonomikoa (Prezioa): 50 puntu, gehienez.**

Kontratazio-zerbitzuan, eskaintzarik merkeenari emango zaio puntuaziorik altuena. Gainerako eskaintzen puntuazioa honako formula honetatik aterako da: eskaintza ekonomiko baxuenaren eta baloratzen den lizitatzailearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza bider irizpideari aplika dakizkiokeen puntuen guztizko kopurua. Hau da:

(Ob/Oi) x Z

Non Ob eskaintza ekonomiko baxuena den, eta Oi baloratzen den lizitatzailearen eskaintza, Z irizpide honetan aplikatu beharreko gehieneko puntu kopurua izanik.

b) **Eskakizunetara egokitzea: 20 puntu, gehienez.** Dokumentu honetan adierazitako espezifikazioak osorik bete diren baloratuko da kontratazioaren xede den zerbitzu bakoitzean, eta gehienez ere 20 puntu emango zaizkio horiei egokitzen zaien eskaintzari.

c) **Hornitzaile iraunkorra: 10 puntu, gehienez.** Eskaintzen duen enpresak iraunkortasunaren arloan duen inplikazio-maila baloratuko da.

d) **Berrikuntza teknologikoa: 10 puntu, gehienez.** Aurkeztutako proposamenak baloratuko dira, bai eta zerbitzua hobeto emateko duten gaitasuna ere, kontratazioaren xede den zerbitzu bakoitzean.

e) **Esperientzia eta ibilbidea: 10 puntu, gehienez.** Kontratazioaren xede den zerbitzuaren ardura duten langileen ezagutza-maila, antolaketa, kualifikazioa eta esperientzia egiaztagarria baloratuko dira.

KONTRATAZIOAREN XEDE DEN ZERBITZU BAKOITZEKO GUZTIZKOA: 100 PUNTU.

III) PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA ESLEIPEN-PROPOSAMENA

Balorazio Batzordeak, dokumentazio orokorra kalifikatu eta zuzenketak eskatu eta jaso eta behin, eta, hala badagokio, eskatutako adierazpen edo dokumentu osagarriak aurkeztu ondoren, edota horretarako emandako epea igaro ondoren, txosten batean bilduko ditu Balorazio Batzordearen ohar guztiak.

Balorazio Batzordeak txosten tekniko bat eta esleipen-proposamen arrazoitua egingo ditu, agiri honetako 4.ii puntu honetan adierazitako irizpideen ponderazioa barne, eta horiekin batera jasoko ditu lizitatzaileekin egindako bileren aktak, bileretatik sortutako dokumentazioa, eta, hala badagokio, egindako txosten partikularra.

IV) ESLEIPENA ETA PUBLIZITATEA

PSOEk kontratua proposamen onuragarrienari esleitzeko ahalmena izango du, esleipenerako ezarritako irizpideen arabera, eta lehiaketa esleitu gabe utzi ahal izango du eskaintzarik aurkeztu ez denean, aurkeztutakoak onargarriak ez direnean edo, bere ustez, PSOEren beharrak asetzen ez dituztenean. Hori gorabehera, PSOEk amaitu gabeko lizitazio prozeduran atzera egin ahal izango du. Aurreko hori suertatuz gero, PSOEk ez du inolako erantzukizunik izango, eta ezin galdatuko zaio batere erantzukizunik.

Esleipena Zuzendari Gerenteak egingo du, Balorazio Batzordeak txosten arrazoitua egin ondoren. Eskaintzarik aurkeztu ez bada edo aurkeztutakoak desegokitzat, irregulartzat edo onartezintzat jotzen badira, lizitazioa esleitu gabe utzi ahal izango da. Esleipena gure webgunean argitaratuko da eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie. Esleipena edo esleipenik eza lizitatzaile guztiei jakinarazi beharko zaie.

4.5. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Esleipena egin ondoren, esleipendunari hitzordua emango zaio, adierazten zaion egunean, agiri honetan ezarritako baldintzak jasoko dituen esparru-kontratu bat formalizatzeko. Eskakizun hori betetzen ez badu, PSOEk esleipena baliogabetzea erabaki ahal izango du, eta kontratazioa beste eskaintzaile batzuei esleitu ahal izango die; hala ere, agertu ez den eskaintzaileari erreklamatu ahal izango dizkio agertu ez izanak eragindako kalte-galerak.



1 / A102 Nivel 1
1 : 125

SUPERFICIE ÚTIL TOTAL:	427.89 m2
SUPERFICIE CONSTRUIDA TOTAL:	441.56 m2

MIRIAM FUENTELSAZ BOGAJO - Arquitecta

Dirección: Prim, 18 CP. 20006 Donostia / San Sebastián (Gipuzkoa)

Tel: 667 215 328 email: mfb.miriam@gmail.com

BAR / RESTAURANTE Y SEDE SOCIAL

AGRUPACIÓN SOCIALISTA DE LASARTE-ORIA

Kalbario Bidea, 7 - Bajo, 20160
Lasarte-Oria (Gipuzkoa)

ESTADO INICIAL. Planta

Número de proyecto	ZMLN20112
Fecha	03/05/2021
Arquitecta proyectista	Miriam Fuentelsaz
Colegiado Nº	COAVN - 570435

A102

Escala 1 : 125

Norte



1 Nivel 1
A103 1 : 125

Tabla de Superficies Útiles

Nombre	Área
Oficina	6.69 m²
Almacén Bar	19.79 m²
Cocina	19.42 m²
Comedor	65.02 m²
Trasbarra	12.59 m²
Distribución	6.87 m²
Aseo M.	3.68 m²
Anteaseo	4.63 m²
Aseo H.	1.45 m²
Sala Reuniones	16.96 m²
Almacén Sede	6.83 m²
Salón	127.40 m²
Distribuidor	29.92 m²
Bar	64.98 m²
Vestuario	2.86 m²
Aseo	3.75 m²
Almacén	1.82 m²
Total general	394.67 m²

MIRIAM FUENTELSAZ BOGAJO - Arquitecta

Dirección: Prim, 18 CP. 20006 Donostia / San Sebastián (Gipuzkoa)

Tel: 667 215 328 email: mfb.miriam@gmail.com

BAR / RESTAURANTE Y SEDE SOCIAL

AGRUPACIÓN SOCIALISTA DE LASARTE-ORIA

Kalbario Bidea, 7 - Bajo, 20160
Lasarte - Oria (Gipuzkoa)

ESTADO FINAL. Planta de distribución

Número de proyecto	ZMLN20112
Fecha	03/05/2021
Arquitecta proyectista	Miriam Fuentelsaz
Colegiado Nº	COAVN - 570435

A103

Escala 1 : 125